

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Zigoitia

Aurkibidea

Udalerria: Zigoitia

Sarrera



Arabako iparraldeko udalerria da, Zuia-Gorbeialdea eskualdekoa, Gorbeia menditik gertuen dagoena. Biztanle gutxi izan arren (1700 inguru), udalerrri handia da hedaduraz eta hainbat herri hartzen ditu barne. XX. mendean zehar euskara atzeraka joan da gutxika-gutxika. 1980. urterako banaka batzuk besterik ez ziren Zigoitiko euskaraz mintzatzeko gauza ziren euskaldun zaharrak. Azkenetarikoak, Zestafe herriko Beobidetarrak.

Argazkia: Wikimedia, [Basotxerri](#).

- **Biztanleak:** 1.417
- **Euskaldunak:** %23,74

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **3**
- Zintak: **6**
- Pasarteak: **13**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **13**

Proiektuak

- Arabako euskara
- Euskal Herriko Ahotsak
- IRALE

Hizlariak

Eleuteria Beobide Garmendia

Zigoitiko Zestafe auzoan jaioa. Zigoitian euskaraz mintzatu den azkenetariko familiakoa da. Aita Dimako Durangokorta baserrikoa zuen, "Arrati" ezizenez ezaguna; ama, berriz, Legutioko Elosua auzokoa. Eleuteriaren aita Elosura ezkondu zen eta, ondoren, Zestafeko Gorostiza auzoan etxea erosi eta bertara joan ziren bizitzera. Bertan jaio zen Eleuteria, 10 anai-arrebako familia batean. Etxalde handia zuten eta behi, behor eta ardi asko zaintzen zituzten.

Jose Beobide Garmendia *Arrati* (1920)

Zigoitiko Zestafe auzoan jaio zen 1920. urtean. Zigoitian euskaraz mintzatu den azkenetariko euskaldun zaharra izan da. Aita Dimako Durangokorta auzokoa zuen, "Arrati" ezizenez ezaguna; ama, berriz, Legutioko Elosua auzokoa zen. Joserren aita Elosura ezkondu zen eta, ondoren, Zestafeko Gorostiza auzoan etxea erosi eta bertara joan ziren bizitzera. Bertan jaio zen Jose, 10 anai-arrebako familia batean. Etxalde handia zuten eta behi, behor eta ardi asko zaintzen zituzten. Jose Zestafeko eskolan ibili zen, baina oso gutxi joaten zen. Gerra hasi zenean, aita eta beste anaia batekin batera preso sartu zuten, oraindik ere zergatik ez dakiela. Hiru urtez preso egon eta gero, bost urteko soldaduska egin behar izan zuen. Bizi guztia eman du baserrian, eta azken urteak Murgiako "Residencia de la Purísima" zahar-etxean eman ditu.



Zeferino Unzalu Mendia (1915)

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Euskaraz etxean bakarrik

- **Hizlaria(k):** Beobide Garmendia, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ZIG-001/002
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:02:12. **Bukatu:** 00:04:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena:** Aita "Arrati" gaitzizenaz ezagutzen zuten, eta Jose semea ere "Arrati" izan zen. Zestafeko eskolara joan zen Jose. Eskolan eta Zestafen erdaraz egiten zen, baina aitak ez zekien erdaraz hitz egiten. Ama elebiduna zen.

Transkripzioa

-“De apodo Arrati” esaten deuskue guri.
 -Zure aittari be bai?
 -Ba aittari esaten eutsien “Arrati” ta gero aitetik paseu de neugana. Ha da “Arrati”, danak “Arrati” esaten eutsen, Arratikoa zan lez, ba danak “Arrati”.
 -Eta zu eskolan non ibili ziñan?
 -Zestafe. Eskolara gitxi.
 -A, bai?
 -Aurie iten eban orduen ta edurre eiten eban ordun bape bez, etxean. Ordu erdiko bidea San Pedrotik Zestafera. Ordu erdiko bidea. Ordu erdi ona e!
 -Ta maixua zein zan? Maixue edo maistrie edo zein zan?
 -Maixue ba, Zestafen euan. Maixue, Narciso euken izena.
 -Euskaldune zan? Euskaldune?
 -Ez, erdeldune.
 -Zuk eskolia erderaz jaso zendun beti?
 -Dana erderaz, eskolan. Ta Zestafen ta San Pedron be dana erderaz. Guk aitegaz iten gendun euskeraz. Aitek ez zekien erderarik. Hak ez zekien, “la que disen, la que hasen” ta holan iten eban /iteaban/ berba. Bai. Ez zekien erderarik. Bape be ez zekien erderarik.
 -Eta amak?
 -Amak bai. Amak erdera ta euskera ondo. Bietara.
 -Ama, Elosuko ze etxetakua zan? Elosuko ze etxetakua ama?
 -Elosu, ba ez dait zelan esango otsuen, etxaldea Handik elexea baiño beheratxuau, elexea baiño apur bat beheratxuau, zelan dauen jokalekue? Ba lehen jokalekutik han beheratxuau hantxe. Hantxe zertu zan, bizi zan.

2. Euskara

2.1. Zestafen euskaldunik ez

- **Hizlaria(k):** Beobide Garmendia, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ZIG-001/004
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:07:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Euskara » Euskararen egoera
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Ikasle euskaldun bakarra zen eskolan. Etxean gurasoekin euskaraz egiten zuten, baina anai-arreben artean erdaraz. Etxean ganadu eta abere ugari zituzten. Erleak ere, lau oholeko erlauntzetan, 200 bat zaintzen zituzten. Familiako kide guztiak omen ziren erlezainak. Eztia etxean saltzen zuten, baina Bilbora ere asko eramaten zuten. Ollerietan gelditzen zen Bilborako autobusa.

Transkripzioa

- Ta eskolan eh kastiguak eta izate zittuen? Maisua ona zan edo?

- Maisue.
- Ona zan, ona?
- Ona edo, ba guzti beharrekoa, guzti beharrekoa.
- Ta euskeraz itte ba zen zer?
- E?
- Euskeraz itte bazen eskolan ze pasatze zan?
- Ez,ez euskera neuk besterik iñok pez.
- Zeuk bakarrz e?
- Bakarrik neuk euskera, han ostantzean ez zekin iñok pez, neuk eh aittek ez zekien erdararik eta hagatino ikesi nuan euskerea. Txikitatik ya euskerea eta erdereia biek batera. Aitek dana euskeraz ta ostantzean, kanpoan dana erderaz, ta gure anaien artean be erderaz dana.
- Ta etxien ganauak eta bazittuen?
- E?
- Etxian ganauak eta bazittuen?
- Bai, bai ardiek, behorak eta ahuntzek eta behiek.
- Kontxo.
- Bai.
- Ta baserrixe, etxalde haundixa orduan.
- Ta erleak be asko.
- Erliak?
- Erleak igual berrehun bet.
- Ez da izango
- Bai,bai,bai.
- Neuk dittut ehun ta berrogeita hamar.
- Erlea, (barrez) erlauntxo antiokoak.
- Enborretan, ezta?
- Lau orlekoak iguel horrelakoak iguel berrehun erle; bai bai, bai asko-asko.
- Ta zeñek zainkite zun erlak?
- E?
- Erlak zeñel zainkite zittun?
- Jabon edo holan?
- Bai, zeñek tratau, zeñek zaindu erlak?
- Aite, aite zan osaba erleena.
- Zeu ez? zeu ez ziñen ibiltzen?
- Geu be bai gero haundiak eiñ giñenien gero gu danok erleetara, erle kumak hartu, erleak martxan dauzenien danok danok, bardin nahi bata nahi beste, igual ite gendun bai.
- Ta estixa noiz ateatze zeuen?
- E?
- Estixa noiz ateaten?
- Estie askotan juate giñan saltzera Bilbora.
- Bilbora?
- Bai, ta bertan bebai, bertan asko saltze gendun; etxean.
- Ta Bilbora zelan juate ziñen, trenez?
- Ez, autobusean.
- Autobusian?
- Bai, autobusez. Egote zan [...] bai!
- Kontxo.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Erlauntzak eta erlekumeak (ZIG-001/005)

Erlauntzak nolakoak ziren, erlekumeak nola jasotzen zituzten eta ezta nola batzen zuten azaltzen du.

2. Ezta eta erlategiak (ZIG-001/006)

Ezta nola urtzen zuten azaltzen du. Urte txarretan erleei jaramonik ere ez zieten egiten. Erlauntzak bata bestearen gainean erlategian nola jartzen zituzten azaltzen du.

3. Etxalde handiko familia zabala (ZIG-001/007)

Behien gorotza lapiko batean erretzen zuten, eta horrela lortzen zuten erleak lasaitzeko kea. Maskara erabiltzen zuten erleekin lanean. 40 abelburutik gora zituzten. Etxalde handia eta jende askokoa zen Joseren jaiotetxea. Zortzi anaia, arreba bi eta gurasoak bizi ziren etxean.

4. 42 soro pusketa lantzen zituzten (ZIG-001/008)

30 behor baino gehiago zituzten, 200 ardi baino gehiago eta ahuntz gutxi batzuk ere bai. 42 soro pusketa lantzen zituzten, harik eta Aldundiak lursail-zatiketa egin eta soro guztiak zati bitan geratu zitzaizkien arte.

5. Alea ehotzera Muruako errotara (ZIG-001/009)

Garia, artoa eta babarrunak hartzen zituzten soroetan. Artoa ganaduarentzat edo etxean taloak egiteko erabiltzen zuten. Gorostiza (San Pedro) auzoan errotarik ez, eta Muruakora eramaten zuten alea ehotzera. Idiek edo behorrek tiratutako narrarekin jotzen zuten garia larrainean. Lastoa ganadujatekotarako erabiltzen zuten.

6. Esnetarako eta okeletarako behiak (ZIG-001/010)

Esne-behi batzuk etxean zaintzen zituzten, baina ganadu gehiena basoan hazten zuten. Etxean sobratzen zen esnea Julio Uribe esnedunak Gasteiz edo Bilbora eramaten zuen saltzeko. Gazta ere hiri horietan saltzen zuten.

7. Eskolara oso gutxi joan zen (ZIG-001/011)

6-8 urterekin hasi eta 14 urtera arte ibili zen eskolan. Eskola urruti zegoen eta oso gutxitan joaten zen. Bazkaria maletan eramaten zuen. Koadernoak, lapitzak eta liburuak eskolan bakarrik egoten ziren. Dotrina eskolatik aparte ikasten zuten, baina hura ere gutxi.

8. Fundamenturik gabeko eskola (ZIG-001/012)

Eskolak oso fundamentu gutxi omen zuen: ez omen zen ikusten funtsezko ikasketarik, jolasik edota maisuak ezer aldatzeko borondaterik. Eskolan etxerako lanik ez zioten ematen.

9. Preso eta soldadu, zortzi urte (ZIG-001/013)

Gerra etorri zen arte, etxean egon zen. 17 urterekin espetxeratu egin zuten. Hiru urtez preso egon eta gero, bost urteko soldadutza egin behar izan zuen.

Aita, beste anaia bat eta bera eraman zituzten preso, oraindik ere zergatik ez dakiela. "Batallón de Trabajadores"en Espainian zehar trintxerak egiten eta hildakoak lurperatzen ibili zen.

10. Garia narrarekin edo makinarekin jotzen (ZIG-001/014)

Bideak konpontzea auzolanean egiten zuten, baina gari-jotzeko bakoitzak berea egiten zuen. Herriak garia jotzeko makina ekarri zuenean, elkar lagunduta jotzen zuten auzokoek garia.

11. Argindarra, sukaldea eta garbitegia (ZIG-001/017)

Urbinatik zetorren argindarra beti ezagutu izan du Josek etxean. Arropak errekan zegoen garbitegi batean garbitzen zituzten. Gaztea zenean beheko sua besterik ez zegoen sukaldean; geroago ekonomika jarri zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com